

# TOLOSAKO UDALERRIAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATEN DUTEN BERTAKO ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK. 2016

## 1.- SARRERA

Oinarri hauen helburua Tolosako udalerrirako diru laguntzen araudia jartzea da. Tolosako berdintasun sailarekin batera lan egiten duten bertako irabazi xederik ez duten elkarteei norgehiagokako erregimen bidez 2016an emango zaizkien diru laguntzak zein baldintzatan eskatu eta jaso ahal izango diren zehazten duen araudia da.

## 2.- ARAUDIA

**Lehenengoa:** Helburu orokorra

Deialdi honen helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko duten programak sustatzea da, Tolosako politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizarte esparru guztietan.

Informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzeko balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte-ereduen eraldaketa bultzatzea.

**Bigarrena:** Hartzaileak

Tolosan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakunde guztiek eskatu eta jaso ahal izango dituzte diru laguntza hauek, beti ere Tolosako udalerrian egoitza edo ordezkariatza iraunkorra duten pertsona edo elkarteak diren heinean. Diru laguntzen onuradun izateko, elkarte eta fundazioek dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute. Baldintza hauek betetzeaz gain, emakume eta gizonen arteko berdintasuna alorrean lan egin beharko dute.

**Hirugarrena:** Deialdiak

Oinarri hauen arabera emango diren diru laguntzak honako zeregin hauetarako erabiliko dira:

- a) 2016 urtean burutako edo burutuko diren jarduera jakinak aurrera ateratzeko.
- b) Elkartearen funtzionamendurako.
- c) Ekipamendurako.
- d) Eskaria egin duen erakundeko mantenu gastuak ordaintzeko, besteak beste: bulego materiala, bulegoko tresneria eta abar.

**Laugarrena:** Diru laguntzak emateko garatu behar diren jarduerak

- a) Emakumeen baldintzak eta egoerak hobetzen laguntzea.
- b) Emakumeen elkarte-sarea zein mugimendu feminista sendotzea.
- c) Emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboen alde egitea.
- d) Emakumeen ahalduntze pertsonala, soziopolitiko eta ekonomiko sustatzeko jarduerak.
- e) Emakumeak esparru soziopolitikoan, kulturalean, zientzian eta bestelako alorretan jarduteko ekintzak.
- f) Genero-arloko rol eta estereotipoez nahiz horiek esparru pribatu eta publikoan emakumeen zein gizonaen bizitzan duten eraginaz informatu eta sentsibilizatzeko jarduerak.
- g) Emakumeen kontrako indarkeriaren

inguruko informazio-, sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak.

h) Etxeko lanetan eta zainketa-arlokoetan erantzukizunen banaketa sustatzeko jarduerak.

i) Gizataldeak eta profesionalak emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean prestatzera bideratutako jarduerak.

j) Udalerrikoak ez diren emakume-taldeekin informazioaren eta esperientzien trukea errazten duten jarduerak.

k) Emakume etorkinak ahalduentzea eta euren eskubideak aldarrikatzea sustatzen duten jarduerak.

**Bosgarrena:** Sartzen ez diren jarduerak

a) Heziketa formalarekin harremana duten jarduerak burutzen direnean.

b) Bidaiak.

c) Udaletxetik beste diru laguntza orokorrak jasotzen dituztenak.

d) Udaleko beste sail edo zerbitzuren baten deialdiak bere baitan hartzen dituen proiektuetarako.

**Seigarrena:** Eskara egiterakoan aurkeztu behar den dokumentazioa

a) Diru laguntza eskatzeko orria beteta eta sinatuta ([www.tolosakoudala.net/dirulaguntzak](http://www.tolosakoudala.net/dirulaguntzak))

b) Erakundearen IFZ kopia, diru laguntza deialdi honetan eskaera egiten den lehen aldia bada.

c) Estatutuen kopia, diru laguntza deialdi honetan eskaera egiten den lehen aldia bada.

d) Elkarteen erroldan izena emanda edukitzea egiaztatzen duen agiria.

e) Banketxeko ziurtagiria, taldearen kontu korronteko 20 zenbakiekin.

f) Urteko proiektua. 2016 urtean elkarreak aurreikusitako programa. Jardueratarako aurreikusitako gastuen eta diru sarreren aurrekontu zehatza. Honetaz gain beste erakundeetatik diru laguntzarik eskatu edo eskuratu al den jarri beharko da, baita eskuratutako zenbatekoa ere.

g) Pertsona onuradun edo entitate laguntzailearen izaera eskuratzeko debekurik ez edukitzearen justifikazioa, Tolosako Udalaren diru laguntzen Ordenantza Orokorrak 8.5 artikuluan dioenaren arabera.

h) Zerga obligazioak egunean beteta izatearen ziurtagiria.

i) Gizarte Segurantzako obligazioak beteta izatearen ziurtagiria.

**Zazpigarrena:** Eskariak aurkezteko tokia eta epea

Eskariak ondoren aipatzen diren udal bulegoetan aurkeztu daitezke:

Udaletxeko erregistro bulegoan: UDATE (Plaza Zaharra, 6 20400 Tolosa)

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, G.A.O.n deialdiaren estraktua argitara ematen den hurrengo egunetik hasita (udaleko erregistroan aurkeztu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara). Azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna izango balitz, epea hurrengo lanegunera arte luzatuko litzateke.

**Zortzigarrena:** Berdintasun batzordeak aztertu eta ebaluatuko ditu eskaerak, eta berak diktaminatuko ditu lehentasunak eta eman beharreko zenbatekoak. Ondoren, txostena egingo du, behin betiko erabakia hartzeko.

Behin betiko erabakia diru laguntzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo 30 egun naturaleko epean jakinaraziko da.

Diru laguntzak emateko baloratuko diren puntuak hauek dira:

- Proposamenaren kalitatea..... 15
- Emakumeen partaidetza, ikusgarritasuna eta jabeakuntza  
sustatzea..... 55
- Bertako errealitatearekiko egokitasuna..... 15
- Emakume taldeen arteko sareak eta hartu-emanak lantzea.....  
15

Genero gaietan berdintasuna sustatzen duten egitasmoen artean hurrengo irizpideak ere kontutan hartuko dira ebaluatzerakoan.

- a) Pobreziaren edo gizarte bazterkeriaren arloak sartzia.
- b) Adinaren edo bizitza zikloaren arloak sartzia.
- c) Sexu aukeraren arloa sartzia.
- d) Inmigrazioaren nahiz kulturarteko tasunaren arloak sartzia.
- e) Dibertsitate funtzionalaren arloak sartzia.
- f) Baliabide eta metodologia berritzaileak erabiltzea.
- g) Aurreikusitako ebaluazio-tresnak.
- h) Ordutegia, iraupena, lekua eta datak hartzaile taldeen arabera egokitzea.
- i) Hizkuntza normalkuntzaren irizpideak kontutan hartzea.
- j) Honekin batera atal bakoitzari emango zaion ponderazioa azalduko da Tolosako udaleko Web orrialdean: [www.tolosa.eus](http://www.tolosa.eus)

**Bederatzigarrena:** Diru laguntzaren zenbatekoa

Oinarri hauetan arautzen diren diru laguntzen zenbatekoa, gehienez 5,000,00€ izango da.

Zenbateko hau, 1400 481.01.23160 diru laguntzaren partidaren kargura finantzatuko da.

Diru laguntza hau beste batzuekin bateragarria da. Edozein kasutan, emandako diru laguntzak, onuradunak eskura ditzakeen beste diru laguntzekin batera, ezingo du egindako gastuaren kopurua gainditu.

**Hamargarrena:** Diru laguntzen ordainketa

Diru laguntzak bi epetan ordainduko dira: Erabakiaren jakinarazpenarekin batera taldeari diru laguntzaren %75 ordainduko zaio.

Honetarako honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, elkarrekin zerga obligazio formalak betetzen dituela azalduko duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko ziurtagiria, elkarrekin erakunde horrekiko zorrik ez daukala azalduko duena.

Gainerako %25 jarduera edo egitasmoaren kontu justifikagarria jasotakoan ordainduko da.

Memoria hori **hurrengo urteko urtarrilaren 31a baino lehen** aurkeztu beharko da eta dokumentu hauek osatuko dute:

1. **Jardueren Memoria**, diru laguntza jaso duen betetako ekintzarena; diru laguntzarekin finantzatutako jardueren azalpen xehatua eta kostua jaso beharko ditu.

Memoriak, gutxienez, atal hauek izango ditu:

- Programaren edo proiektuaren izena.
- Diru laguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.
- Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.

- Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.
- Finantza baliabideen zerrenda: Diru laguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste diru laguntza batekin edo onuradunen diruarekin finantzatutako beste jarduera batzuen ere.
- Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzailen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.
- Ondorioak.

2. **Memoria Ekonomikoa**, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

- Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.
- Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreraren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptuka antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituen. Gastuen zerrendak hau jasoko du:

- Hartzekodunaren indentifikazioa
- Dokumentuaren indentifikazioa
- Zenbatekoa
- Igorpen data
- Ordainketa data

- Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuei itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez.

- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren eta diru laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

Aurreko guztiaz gain, gastuei dagokienez eskakizun hauek ere bete beharko dira:

- Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: lan kontratuen kopiak, hartzaileek sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiriak.

Memoriarekin batera, elkarteak agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren ziurtagiri eguneratua, elkarteak zerga obligazio formalak betetzen dituela azalduko duena.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko ziurtagiria, elkarteak erakunde horrekiko zorrik ez daukala adierazten duena.

Bigarren ordainketa, aurreko tramite eta betebeharrak guztiak bete ondoren egingo du Udalak.

Agiriok aurkezten ez badira, elkarteak galdu egingo du onartutako zenbatekoa.

3. **Balioespen txostena** udal langile-teknikari eskudunek idatzitakoa; dokumentuan argi azalduko da diru laguntzaren objektua erabat bete dela, edo justifikazioa onartu ezin duten gabeziak edo egoerak daudela.

Inbertsioetarako diru laguntzen kasuan, egindako egiaztapen materialaren emaitza jasotzen duen akta edo txostena.

**Hamaikagarrena:** hizkuntzaren erabilera eta irudien tratamendua ez sexista.

Igorritzen den idatzizko dokumentu oro hizkuntza ez sexista erabiliz egingo da. Irudi sexistak eta emakumeen eta gizonezkoen rol estereotipatueta oinarrituriko irudiak saihestuko ditu

**Hamabigarrena:** Baldintzak ez betetzea.

Oinarriotan jarritako baldintzak betetzen ez badira, diru laguntza emateari utzi egingo zaio, eta halakoetan, gainera, aurrez jasotako diru guztia itzuli egin beharko du elkarteak.

**Hamahirugarrena:**

Oinarri haueetan ez araututako guztiari diru laguntza ordenantza orokorra aplikatuko zaio.